

Leku-lekutan

Urtzi Urrutikoetxea



Letonia-Nafarroa-Txillardegia

2001ean Adios herriko (orduan Adiotz deitu behar genion euskaraz, gerora gaztelarazkoaren parekoa erabiltzea onartu du Euskaltzaindiak) galdeketa albistea egin nuen, Euskal Telebistako albistegietan. Uxue Barkos nuen editore, lanbide honetan konfiantza handienetakoa eman didan pertsona, beti zorrotz, beti euskaltzale.

Azken orduan agindu zidan Izarbeibariko udalerrri haren berri ematea. Herria eremu ez-euskaldunetik mistoan sartzea bozkatu zutela uste dut (marka da interneten dena ei dagoen garaian duela hamar urteko albisterik ezin topatzea. Baina *Egunkaria*-ren absoluzio eta guzti, 1991-2003 arteko artxibo bikain hori desagertuta dago, liburutegi osoa erreta Iñigo Aranbarrik esan bezala). Kontua da, euskararen aldekoek irabazi egin zutela. Ez dakit zelan eman nuen albistea, baina gauza positibotzat hartu genuela bai. Biharamunean, *Gara*-k bestelako irakurketa egiten zuen: eskubideak ez dira bozkutzen. Hau da, gehiengoaren iritzia eremu ez-euskaldunetan geratzea balitz ere, euskaldunek eskubideak izaten jarraituko lukete. Hau da, gehiengoak ez dauka gutxiengoari eskubideak ukatzerik.

Horixe ekarri dit gogora egunotan Letoniako kazetari adiskide batek esandakoak, eta Nafarroako Legebiltzarrean gertatu denak (eremu ez-euskalduna misto bihurtzeko proposamenari PSNk emandako ezetzak, PP eta UPNrekin batera). Txillardegia zenak aspaldi adierazi zuen herrialde baltikoetako bidea, independentzia lortu eta hizkuntza galdu zuen Irlandaren aurretik (hori Euskal Herriko paradoxa: euskarak estatua/independentzia behar du bizitzeko, baina independentziak erdaldunak ere beharko ditu, balizko galdeketa gehiengo izateko). Estatu baltikoetako errealtatea, Letoniakoa batez ere, ondoren ezagutzen dutenetakoa da Asier Blas, eta nabardura eta kritika ugari egin dizkio eredu horri. Aski interesgarria da Blasen blegean barneratzea, hizkuntza normalizatzearen ereduaren —eta balizko independentzia eta estatua eratzearen buruz— porrotaren berri izateko. Datu soil bat: duela hogeitun urte independentzia lortu zuenean 2,6 milioi herritar zituen Letoniak, egun ez da bi milioira iristen. «Biztanleen % 25 baino gehiago galdu ditu, gerra gogor eta lazgarria sufritu duen herrialde baten datuak dira» argitu izan du Blasek.

Letonian errusiera ofizialtzea eskatzen duen erreferenduma egingo dute. Ez dago zalantza asko emaitzari buruz: zentsuaren erdiaren bo toak beharko lituzteke errusieraren aldekoek

Testuinguru hori ahaztu gabe, hizkuntzaren auzia berriz ere hizpide daukate Letonian. Eta errusiera ofizialtzea eskatzen duen erreferenduma egingo dute otsailaren 18an. Errusieraren aurkako neurriak gogortu ahala, eslaviar jatorriko herritarrak antolatuta eta erreferendumaren aldeko 187 mila sinadura lortu zituzten. Letoniako zentsuaren % 10ak (154 mila lagunek) erreferendum eskaera eginez gero, hala egin behar da. Ostiralean Auzitegi Gorenak galdeketa berretsi zuen, eta atzera bota eskuineko bi alderdiren eskaera, bertan behera gera zedin. Ez dago zalantza askorik emaitzari buruz: zentsuaren erdiaren botoak beharko lituzkete errusieraren aldekoek. Biztanleen ehuneko berrogei inguruk dute eslaviar jatorria, baina ehuneko hamabostek ez dauka herritartasunik (bote eskubiderik ere ez, beraz), besteak beste letonieraz ez dakitelako. Hala ere, letonieraz bikain dakiten milaka herritarren aurkako arrazakeriaren berri eman izan du Asier Blasek sarritan, eslaviar jatorria izan edo ezkerreko alderdietan (gehienetan bat datozen) aritzeagatik.

Bestelako politikak egon dira Lituania, baita errusiar jatorriko biztanle asko dituen Estonian ere. Txillardegiren sokak merezi du jarraipenik, Baltikoko, Irlandako eta beste herrietako arrakasta eta porrotaren berri izateko. Baina hizkuntza-eskubideak eta herritarren borondatea ere aintzat hartu beharko lirateke. Duela 25 urte euskal eremuan sarturiko udalerrri batzuetan zegoen euskaldun kopurutik gora daukate gaur eremu ez-euskalduneko zenbait udalerririk. Eta parlamentuek edo udalbatzek dena erabaki ordez, herritarrei hitza ematea ez da esperientzia txarra, norbere herria non kokatu erabakitzeke.



Madallako eliza kristauaren aurka abenduaren 25ean eginiko eraso. EFE

Gurutze Gorriak dio 120tik gora hil direla Nigeriako azken erasoetan

Boko Haram erakunde islamistak hartu ditu bere gain atentatuak; inoiz egin duen erasorik handiena izan da

Erredakzioa

Hasiera batean prentsak hiru hildako zirela zabaldu bazuen ere, Gurutze Gorriak jakinarazi duenez, 120 lagun baino gehiago hil zituzten Nigeriako Kano hirian herenegun egin zituzten atentatuetan. Bertako hedabideek diotenez, hildakoen kopuruak gora egin dezake; izan ere, asko daude larri zaurituta. Boko Haram muturreko talde islamistak egin ditu erasoak. Atentatuak egin eta ordu gutxira hartu zituen bere gain, *Daily Trust* egunkari nigeriarrari telefonoz deituta. Hildakoen artean segurtasun indarretako kideak eta zibilak daude. Abul Qaqa Boko Harameko bozeramaileak jakinarazi duenez, agintariak Kano preso dauden hainbat taldekide kanporatzea onartu ez dutelako egin dituzte erasoak. Nigeriako Gobernuak 24 orduz etxeratzeko agindua jarri zuen indarrean atentatuen ostean.

Erasoak 16:30ean hasi ziren, hainbat polizia etxeren eta estatuko segurtasun indarren aurka eta immigrazio bulegoen aurka. Bonba-auto bat leherrarazi zuten jendea bizi den gune bateko polizia etxe baten kontra, eta arma arinak eta lehegailuak erabili zituzten eraso egiteko beste kasuetan.

Hereneguneko, Boko Haram taldeak inoiz egin duen atentaturik handiena izan da. Iazko Eguberri egunean beste bi eraso handi hartu zituen erakunde islamis-

tak bere gain. Madallako eliza baten kontrako atentatuan 44 pertsona hil zituen, eta NBE Nazio Batuen Erakundearen Abujako egoitzaren kontrako eraso batean, berriz, 25 lagun. Al-Qaeda-kiko harremana onartu izan dute Boko Harameko kideek behin baino gehiagotan.

Gabonetako atentatuak izan zirenetik hona, talde kristauen errepresaliak eta muturreko talde islamistaren atentatuek eze-gonkortasuna eragin dute herrialdean. Milaka pertsonak etxea atzean utzita ihes egin dutela jakinarazi dute gobernuak kanpoko erakundeek. Boko Haram Nigerian xaria lege islamikoa ezartzeko ari da borrokan, kideek adierazi dutenez.

Tentsio gunea

Politikaren, erlijioaren eta lurraldearen inguruko tentsioak antzak dira Afrikako herrialdean. Nigeria kontinenteko herrialderik jendetsuena da, bertan 150 milioi pertsona baino gehiago bizi dira. Berrehundik gora etnia daude herrialdean. Azken gatazka nagusia, ordea, erlijio banaketak eragin du. Hegoaldea, kristauak dira nagusi, eta iparraldean, aldiz, musulmanak. Bi komunitateen arteko liskarrak handituz joan dira azken hilabeteetan, Madallako eliza kristauaren kontrako eraso gertatu zenetik, gobernuak larrialdi egoera ezarri behar izan du herrialdeko hainbat lurraldeetan. Boko Haram taldeak kristauei herrialdearen iparraldetik ihes egiteko ultimatum eman zien joan den urte bukaeran. Emandako epea amaitu eta gero, eraso bortitzak hasi zituzten iparraldeko kristauen kontra hila-ren hasieran.

→ Laburrak

Gutxienez 61 lagun hil dituzte Sirian

KAIRO › Siriako matxinadan 61 hildakoren berri eman zuten atzo oposizioko eta gobernuko iturriek. Herri Koordinaziorako Batzordeen arabera, Idlibeko ospitalean identifikatu gabeko 30 gorpu aurkitu dituzte. Sana agentziaren arabera, berriz, presoak zeramatzen autobus baten aurka lehegailu bat zartarazi zuten Ariha eta Idlib artean. Hamalau lagun hil zituzten.

NTCren egoitza bati eraso diote Libian

BENGHAZI › Libiako Benghazi hirian hainbat manifestarik NTC Trantsiziorako Kontseilu Nazionalaren egoitza bati eraso egin diote. Agintari berriei garrantasun handiagoa eskatzeko protestak egin dituzte hirian azken egunetan. Izan ere, Muammar Gaddafiren erregimeneko hainbat lagunek agintean jarraitzen dutela salatu dute.

Bosnia eta Herzegovinan iheslari bat atxilotu dute

SARAJEVO › Gerra krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak leporatuta, hoguei urteko espetxe zigorra ezarri zioten Radovan Stankovitxi, baina 1997an Foca hiriko espetxetik ihes egitea lortu zuen. Atzo, hiri horretan bertan atxilotu zuten Poliziak. Hagak Bosnia eta Herzegovinako krimenengatik zigortu zuten lehena izan zen Stankovitx.

Indiako hamahiru polizia hil dituzte maoistek

NEW DELHI › India iparraldeko Jharkhand estatuan maoistek gutxienez hamahiru polizia hil dituzte, eskualdeko Poliziaren bozeramaile batek jakinarazi duenez. Iturri horren arabera, agenteek basogune batean mina bat zanpatu zuten, eta gerrillariak tiro egin zieten ondoren. Azken asteetan egingo eraso handiena izan da Jharkhandekoa.

Italiako hondoratzean hildakoak hamabi dira

ERROMA › *Costa Concordia* Italiako Giglio uhartean hondoratutako itsasontzitik gorpu bat gehiago atera dute erreskate taldeek, eta hamabira igo da hildakoen kopurua. Bertze hoguei lagunek desagertuta jarraitzen dute oraindik. Babes Zibilerako buruak erran du horiek aurkitzea dela «lehentasuna».